

BALIOA: BESTE LEHIAKIDEEKIKO DESBERDINTASUNA:

Gure produktua prestazio eta pertsonalizazioan sar daiteke. Crema jada sortuta dagoen ondasun bat da, horregatik, gure produktua prestazioa dela esan genezake, hala eta guztiz ere, geure produktuak berezitasun bat izango du beste kremengandik bereizten duena alegia. Geure kremak jatorri ekologiko eta naturalekoak izango dira.

Gure kremak bezero bakoitzaren beharrezanetara egokituko ditugu (azal lehorra, koipetsua...), horrela haien lehentasunak asetuz. Beraz, pertsonalizazioa emango dela ere esan dezakegu.

Bezeroek, nahi, gustu, behar edo lehentasun desberdinak izango dituzte. Pertsona bakoitzaren azala desberdina da; batzuk azal lehorra izango dute, eta azal hori tratatuko duen crema sortu beharko dugu, lehengai natural eta ekologikoekin. Beste batzuk ordea, azal koipetsurako crema beharko dute. Honez gain, jendeak haiek kontsumituko duten produktua, bertakoa izatea eskatuko dute, baita osagai kimiko edo artifizial gabea izatea ere, eta behar guzti hauei erantzungo diegu geure produktuarekin.

SEGURTASUNA:

Behin salmenta burutu dela, produktua ezingo da erabili ondoren dendara itzuli. Hau ez gertatzeko, erakusgai edo lagin batzuk emango dizkiogu bezeroari geure produktuak probatu ditzan erosi aurretik.

Ohiko kremak baina prezio altuagoa izango duen arren eskuragarria izango da.

Azkenik, erabilerraztasunekoak izango da, soilik crema aurpegiari ematea datza.

Lana erraztea: Gure produktuak ez du lanik errazten baina zerbitzu hobe bat emango du. Denbora luzeari begira lana erraztuko du, izan ere gure kremekin azal paregabea izango dute bezeroek eta ez dute tratamendu garestiagoen beharrik izango, laserra edo mikropigmentazioa kasu.

Diseinua: Gure kremak diseinu sofistikatu eta ezberdina izango du, beste kremetatik bereizteko. Gure ontzikiek kolore doratua izango dute, eta ez dira oso handiak izango.

Marka/Statusa: Moda eta estetikaren sektorean sartzen da. Marka, guk sortutakoa izango da, Kula Beauty izenekoa.

Produktu berri bat denez, gure marka propioa sortuko dugu, markak kremaren izen berdina izango du, Kula. Nahiz eta gure marka propioa izan, ez dugu dendarik irekiko, beste estetika dendei salduko dizkiegu, adibidez sephorari.

Prezioa: Goi mailako produktu naturalak erabiliko ditugunez, prezioa ere kalitatearekin bat etorriko da. Hortaz, arruntak baina altuagoa izango da.